



EBAZPENA (04/2010 esp., BANANAK)

Osoko bilkura

Joseba Andoni Bikandi Arana jauna, lehendakaria

Juan Luis Crucelegui Gárate jauna, lehendakariordea

María Pilar Canedo Arrillaga andrea, kidea

José Antonio Sangroniz Otaegi jauna, idazkaria

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abenduaren 22a

Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak (LDEA), adierazitako kideak bertan direla eta Joseba Andoni Bikandi Arana jauna txostengile dela, ebazpen hau egin du BANANEI buruzko 04/2010 espedientean. Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak (LDEZ) hasi zuen hori, MERCABILBAOKO BANANA-HELTZAILEEN ELKARTEAK ipini zuen salaketa baten ondorioz. Salaketa horretan adierazi zen Bilbaína de Comercialización S.A. (BILCOSA) izeneko merkataritza-etxeak, ustez, lehia murrizteko jardunbideak egin zituela.

AURREKARIAK:

1. 2009ko urriaren 14an Nerea Goiriena Arce andreak MERCABILBAOKO BANANA-HELTZAILEEN ELKARTEAREN ordezkartzan aurkeztutako salaketa sartu zen Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailean. Horren bitartez, *Bilbaína de Comercialización S.A. (BILCOSA)* merkataritza-etxeak eta horri lotutako enpresek ustez egindako lehia murrizteko jardunbide hauek adierazi ziren: banana helduak saltzea jatorrizko merkatuan (Kanarietan) banana berderako ezartzen den erreferentziazko edo jatorrizko prezioa baino merkeago. Jardunbide horien ondorioz, merkatutik kenduko lirateke BILCOSAREN lehiakideak eta, horrela, ez litzateke lehiarik egongo.

Salatzaileak adierazi du jarduera horiek Kanarietako bananaren merkatua eta produktuaren prezioa aldatzea eragiten duela, Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legea urratuz. Era berean esan du produktuak duten kostua baino merkeago saltzeak, nolabaiteko nagusitasunezko egoeraz aprobetxatuz, kalteak eragiten dituela ekonomia guztian oro har, gainerako enpresak arrazoirik gabe kentzen direlako, lehiaren ikuspegitik. Beraz, desleialtat hartzen da jarduera hori, Lehia Desleialari buruzko 3/1991 Legearen 17. artikuluan adierazitakoaren arabera.



2. 2009ko urriaren 16an, Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak (aurrerantzean LDEZ), aurkeztutako salaketa zuzentzeko agindeia bidali zion salatzaileari: Bizkaian bananaren handizkako salerosketa-merkatuaren deskribapena (jarduten duten enpresak, merkatu-kuotak, etab.), bananaren erreferentziazko prezioa ezartzeko mekanismoaren deskribapena, eta aurkeztutako salaketaren deskribapen zehatzagoa. 2009ko abenduaren 21ean bete zen hori.
3. 2010eko urtarrilaren 12an LDEZk ohar laburra bidali zion Lehiaren Batzorde Nazionaleko (LBN) Ikerketen Zuzendaritzari, salatutako jokabideari buruz, Estatuak eta autonomia-erkidegoek lehia babesteko dauzkaten eskumenak koordinatzeko otsailaren 21eko 1/2002 Legearen 2. eta 5. artikuluetan ezarritakoaren arabera. Bertan adierazi zen espedientearen jasota zegoen informazioaren arabera, ez zela hautematen jokabideak Euskal Autonomia Erkidegoarena baino maila goragoko esparruari eragiten zionik eta, 1/2002 Legearen 1. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, kasu honi buruz jakiteko eskumena Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuari zegokiola iritzi zen. 2010eko urtarrilaren 21ean esleipenarekin ados zegoela zioen LBNren idazkia jaso zuen LDEZk.
4. Salatutako gertakariak egiazkoak ziren egiaztatzearen, eta Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legean (aurrerantzean LDL) azaldutako arau-hausteen zantzurik egon den ikertzearen, 2010eko otsailaren 4an, Ekonomia eta Plangintzako zuzendariak egindako ebazpenaren bitartez, informazio erreserbatua hasiko zela erabaki zen, hala balegokio bidezko zehapen-espedienteak ireki aurretik, LDLren 49.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.
5. 2010eko otsailaren 10ean LDEZk zenbait informazio eskatu zion BILBAINA DE COMERCIALIZACIÓN S.A. (aurrerantzean BILCOSA) merkataritza-etxeari: zein jardueratan aritzen den, FRIGORÍFICOS BASAURI SLrekin dituen akordioak, bananak erreferentziazko prezioa baino merkeago saltzen dituzten kasuak, etab. 2010eko martxoaren 2an bete zen hori.
6. 2010eko otsailaren 10ean LDEZk zenbait informazio eskatu zion MERCADOS CENTRALES DE ABASTECIMIENTO DE BILBAO S.A. (aurrerantzean MERCABILBAO) merkataritza-etxeari: bananak kontserbatu, heldu, sailkatu, ontziratu, merkaturako eta/edo saltzeko jardueran aritzen diren enpresen zerrenda eta bananaren prezioaren bilakaerari buruzko informazioa. 2010eko otsailaren 19an bete zen hori.
7. 2010eko otsailaren 10ean LDEZk zenbait informazio eskatu zion FRIGORÍFICOS BASAURI S.L. (aurrerantzean FRIBASA) merkataritza-etxeari: zein jardueratan aritzen den, BILCOSArekin dituen akordioak, zer egiten duten bezeroek baztertzen dituzten bananekin, etab. 2010eko martxoaren 2an bete zen eskaera hori.



8. 2009ko abenduaren 23an, aipatutako elkarte profesionalak salatutako jokabideei dagokienez zehapen-espediterik ez irekitzeko proposamena bidali zion LDEZk Auzitegi honi.
9. Auzitegiak 2011ko abenduaren 22ko batzarrean eztabaidatu eta erabaki zuen gaia, Joseba Andoni Bikandi Arana jauna zela txostengilea.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK:

10. Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 49.3. artikulua honako hau dio: *Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluak, Ikerketen Zuzendaritzak proposatuta, lege honen 1, 2, eta 3. artikuluetan debekatutako jokaerak ustez izateagatik hasi beharreko prozedurak ez hastea erabakitzeko aukera izango du, eta ordura arteko jarduerak artxibatzei aukera, legea urratu izanaren zantzurik ez dagoela irizten baldin badio.*
11. Lehiaren Defentsari buruzko legearen zortzigarren xedapen gehigarriaren arabera, *Lege honetan Lehiaren Batzorde Nazionalari eta bertako zuzendaritza-organoei buruz egiten diren erreferentziak, hain zuzen ere eginkizun, administrazio-ahalmen eta prozedurei buruzkoak, autonomia-erkidegoetan arlo horretako eskumenak dituzten instrukzio- eta ebazpen-organoei buruzkoak ere badirela ulertuko da, erreferentzia horiek lege honen 13. artikuluan aurreikusitako eskumenen ingurukoak direnean.*
12. Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, apirilaren 12ko 81/2005 Dekretuak (Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia sortu eta Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoan izango dituen eginkizunak ezarri zituen Dekretua aldatu zuen martxoaren 4ko 36/2008 Dekretuak aldatu zuena), alde batetik, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia eta, bestetik, Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzua bereizten ditu. Biak beren eginkizunei dagokienez Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legeak ezarritakora egokitu beharko dira. Hala, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiari dagokio jarduerak artxibatzeari buruzko ebazpena ematea, legea urratu izanaren zantzurik ez dagoela uste duenean, Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 44. artikuluaekin bat etorritik.
13. MERCABILBAOKO BANANA-HELTZAILEEN ELKARTEAK Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuan salatu du BILCOSA merkataritza-etxea Kanarietan bananarako ezartzen den erreferentziazko edo jatorrizko prezioa baino merkeago saltzen dabilela banana helduak. Jokabide hori, saltzailearen iritziz, ez da une zehatz batean gertatu, eta ez dago merkaturako inguruabar bereziek justifikatuta (gehiegizko produkzioa, produktu galkorra



saltzeko beharra, etab.), eta duela 24 hilabetetik gertatzen da, bereziki azken hilabeteetan. Deskribatutako jokabideak, salatzailearen iritziz, Kanarietako bananaren merkatua eta produktuaren prezioa aldatzea eragiten du, Lehiaren Defentsari buruzko Legeak jazarri eta debekatutako kolusiozko jardunbidea dela. Horrelako merkataritza-jardunbideek “dumping” izena dute, hau da, enpresen borondatezko ekintzak dira produktuak merkatuan duten kostua baino merkeago saltzeko, nolabaiteko nagusitasunezko egoeraz aprobetxatuz.

Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak uste du, salaketako gertakariak aztertu eta gertakariok Lehiaren Defentsari buruzko Legearekin egiaztatu ondoren, ez dela ikusi Lehiaren Defentsari buruzko Legearen aginduak urratu izanaren arrazoizko zantzurik. Ez da egiaztatu bananak jatorrizko prezioa baino merkeago saldu direnik, baina, hala izango balitz ere, arrazoi objektiboa dago hori egiteko, hau da, balioa galtzetik hurbil dagoen produktu galkorra dela.

- 14.** Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legeak honakoa dio 2.1 artikuluan: *Debekaturik geratu da enpresa batek edo batzuek duten nagusitasunezko posizioa gehiegikeriaz ustiatzea. Abusua, besteak beste, honakoa izan liteke: Zuzenean edo zeharka, bidezkoak ez diren salneurriak edo beste merkataritza- edo zerbitzu-baldintza batzuk inposatzea (LDLren 2.2.a artikulua).*

Baldintza bi bete behar dira hori aplikatu ahal izateko: batetik, eragile ekonomikoak nagusitasunezko egoera izan behar du merkatu adierazgarrian eta, bestetik, jokabide horrek abusuzkoa izan behar du.

Prezio harrapakariak ezartzeko jokabidearen ondorioz, nagusitasunezko egoera duen enpresak prezioak jaisten ditu eta, beraz, nahita izaten ditu galerak —edo uko egiten dio epe laburrerako irabazia eskuratzeari—. Horrela, benetako edo balizko lehia murriztea lortzen du, eta horrek aukera emango dio epe luzerako monopolio-prezioak ezartzeko. (LAren 1991ko abenduaren 12ko epaia. Gaia: T-30/89, Hilti).

- 15.** Merkatu adierazgarria produktu-merkatua eta geografia-merkatua mugatzearen bitartez zehazten da. Kasu honetan MERCABILBAOren eremuan Kanarietako banana handizka merkaturatzeko merkatua izango litzateke.
- 16.** LDEA honek, lehenengo eta behin, aipatutako elkarte profesionalak salatutako gertakariak aztertu nahi ditu, egiazko oinarriak duten egiaztatzearen eta, ondoren, Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearekin egiaztatzearen.

Salaketan deskribatutako gertakarien zerrendan nabarmentzekoa da honako eragile ekonomiko hauek azaltzen direla: Eroski, S. Coop.,



Frigoríficos Basauri, S.A. (FRIBASA) eta Bilbaína de Comercialización, S.A (BILCOSA).

FRIBASAREN helburua da hotz-ganberak ustiatzea, bertan edo alokairu-erregimenean; fruitu, barazki eta ortuarien handizkako zein txikizkako salerosketa egitea; salgai horiek komisioan saltzea; merkaturatutako salgaiak maneiatu, ontziratu eta atontzea; adierazitako salgaiak biltegitatu eta gordetzea, baita hotz-ganberetan ere, eta fruta, barazki eta ortuariak merkaturatzearekin zerikusia duen beste edozein eragiketa egitea. Sozietatearen helburuko jarduerak zuzenean gara ditzake FRIBASAK, edo zeharka, beste nortasun juridiko bat duten sozietate edo erakundeetan parte hartuz (Sozietatearen estatutuetako 2. artikulua). FRIBASAREN akziodun bakarra BILCOSAREN akzioduna da, baita bietako administratzaile bakarra ere. Idatzizko agiririk formalizatu ez duten arren, enpresa biek merkataritza-harremana dute 2008ko maiatzetik, besteak beste banana ez-egoki edo erreusak merkaturatzeko MERCABILBAON.

FRIBASA enpresaren ordezkariak adierazi duenez, bezero bakarra dauka enpresa horrek, EROSKI SOCIEDAD COOPERATIVA. Zuzenbide- eta merkataritza-harremana du bezero horrekin, berak bakarrik emateko fruituak heldu eta maneiatzeko zerbitzuak. FRIBASAK bananak heldu eta maneiatzeko zerbitzuak ematen eta fakturatu dizkio EROSKIRI. Gainera, bananek ez badituzte betetzen EROSKIK bere denda-sarearen bitartez merkaturatzeko eskatzen dituen kalitate edo/eta neurri-baldintzak, FRIBASA arduratzen da produktuok saltzeaz. Sozietatearen estatutuetako 2. artikuluko 2. paragrafoan adierazitakoaren arabera merkataritza-etxe horren jardura zeharka egin daitekeenez, FRIBASAK beste enpresa bati agintzen dio FRIBASAK egindako heltze- eta maneiu-prozesutik eratorritako banana ez-egokiak —edo erreusak— saltzea. Bezeroak uneoro mantentzen du produktuaren jabetza.

Enpresa hori BILCOSA da, MERCABILBAON dagoen enpresa, eta bere helburua da fruitu, barazki eta ortuarien handizkako zein txikizkako salerosketa egitea; salgai horiek komisioan saltzea; merkaturatutako salgaiak maneiatu, ontziratu eta atontzea; adierazitako salgaiak biltegitatu eta gordetzea, baita hotz-ganberetan ere, eta fruta, barazki eta ortuariak merkaturatzearekin zerikusia duen beste edozein eragiketa egitea. Bananei dagokienez, enpresa honek dio MERCABILBAON bakarrik merkaturatzen duela.

17. Horrela, EROSKIK, erosketa-zentralaren bitartez, berde erosten dizkie bananak zuzenean ekoizleei, estatu osoa merkaturatzeko bere denden bitartez. Banana berde erosi denez, EROSKIK FRIBASAREKIN azpikontratatu du banana heldu eta maneiatzeko zerbitzua. Gainera, eragiketa horretatik ondorioztatutako bananek ez badituzte betetzen EROSKIK bere merkataritza-sarearen bitartez merkaturatzeko eskatzen dituen kalitate edo/eta neurri-baldintzak, EROSKIK beste batzuei (FRIBASA)



agintzen die heltze-prozesua gainditu duten banana baztertuak besterentzea.

Era berean, FRIBASAK, banana berdeak heldu eta maneiatzeko zerbitzuak emateko EROSKI kooperatibarekin duen merkataritzako kontratu-harremana gauzatuz, BILCOSARI —FRIBASAREN partaidetza duen merkataritza-etxea— agintzen dio heltze-prozesua gainditu duten EROSKIren banana “ez-egoki edo erreusak” saltzea. BILCOSAK MERCABILBAON saltzen duen banana ez-egokiaren jabetza EROSKIrena da, eta BILCOSAK egiten duen gauza bakarra produktua saltzea da, FRIBASAK aginduta. FRIBASAK ez du produktua eskuratzen, ez eta BILCOSAK ere; egiten duen gauza bakarra produktua MERCABILBAOren handizkako merkatuan besterentzea da.

Eztabaida eragin duten bananak EROSKIren jabetzakoak dira uneoro, baina EROSKI FRIBASAZ baliatzen da, eta FRIBASA BILCOSAZ, EROSKIk baztertzen dituen bananak ateratzeko. Behin produktua salduta, BILCOSAK FRIBASARI likidatu eta ordaintzen dio salmenta-preziotik ondorioztatutako zenbatekoa ken eragiketaren kostuak, ondoren EROSKIRI emateko.

18. Salatzaileak azaldutako planteamendua egiazkoa da, salatutako BILCOSA eta FRIBASAREKIN egiaztatu denez, eta argi dago banana produktu fresko eta galkorra dela, eta behin helduta denbora laburra duela balioa galdu arte. Hori guztia dela eta, LDEA hau ez dago ados, inola ere, salatzaileak gertakari horien inguruan, salmenta-prezioa EROSKIK ordaindutako jatorrizko prezioa baino txikiagoa dela dioen premisaren pean, azaldutako ondorio juridikoarekin. Salatzaileak ondorioztatzen duen ondorio juridikoa da jokabide hori Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legeak jazarri eta debekatutako kolusiozko jardunbidea dela. Salaketa ipini duen elkarte profesionalaren iritziz, BILCOSA merkataritza-etxeak prezio harrapakarietan saltzen ditu bananak Mercabilbaon, elkarte profesional salatzaileko enpresak merkatutik kentzeko helburuarekin.

19. Lehenengo eta behin aipatu beharra dago LDEA bat datorrela LDEZK ebazpen-proposamenean azaldutako iritzi honekin: informazio erreserbatuaren fasean ez da frogatu BILCOSA enpresak jatorrizko prezioa baino merkeago saltzen dituenik bananak MERCABILBAON. Ondorioz, ezin da ondorioztatu LDLren 2. artikulua urratu izanaren zantzurik.

Hala eta guztiz ere, LDEA LDEZK egindako iritzitik haratago doa: ez da egiaztatu, eta ezin da egiaztatu, BILCOSAK ez dituelako jatorrizko merkatuan erosten salaketan azaldu diren eta MERCABILBAON saltzen dituen bananak, egiten duen gauza bakarra FRIBASAREN agindua gauzatzea baita, hau da, bere merkataritza-sarearen bitartez saltzeko beharrezko kalitate-baldintzak betetzen ez dituztelako baztertu diren EROSKIren bananak merkaturatzeko zerbitzua eman. Salgaiak saldu ostean, BILCOSAK FRIBASARI fakturatzen dio merkataritza-eragiketa.



EROSKIk baztertutako bananak, horrek FRIBASARI agindu diola bananok saltzea.

- 20.** Aurrekoaz gain, aipatutako merkatu adierazgarrian EROSKIk izandako jokabidetik ere ezin daiteke ondorioztatu nagusitasunezko egoeraz abusatze kolusiozko jokabiderik izan denik prezio harrapakariak ezartzearen bitartez, lehiakideak kentzeko asmoz. Izan ere, kooperatiba hori ez da elkarte profesional salatzailea osatzen duten enpresen aurkaria, ezta lehiakidea ere, eta, beraz, bere asmoa ezin izan daiteke elkarte profesional salatzailea osatzen duten enpresak merkatu adierazgarritik kanpo uztea.

EROSKIk jatorrian bi bidetatik eskuratu dituen banana berdeak merkaturatzen ditu: bata zuzena eta ohikoa da, banatzaile horren Estatuko merkataritza-sarea, bere merkataritza-sarearen bitartez merkaturatzeko kalitate-baldintzak betetzen dituen bananarena; beste bidea hondakinezkoa da, beste bitarteko batzuen bitartez (FRIBASA) eskuratutakoa, bere merkataritza-sarearen bitartez merkaturatzeko kalitate-baldintzak betetzen ez dituelako baztertu den bananarena, heldze-fasea gainditu ondoren denbora laburra duena kontsumoaren bitartez aprobetxatzeko.

Bai FRIBASA eta bai BILCOSA EROSKIren bitarteko enpresak dira, berak merkaturatzen dituenak baino kalitate txikiagoa dutelako Eroskik bazterten dituen bananak saltzeko. Bada, ez dute elkarte profesional salatzaileko enpresen lehiakide gisa jarduten merkataritza-eragiketa horietan, baizik eta baztertutako produktua besterentzeko EROSKIren bitarteko gisa.

Are gehiago, banana horiek saltzeko prezioa EROSKIk erosten dituen jatorrizko merkatuko baina merkeagoa izango balitz ere, kontuan izan behar dugu EROSKIren merkataritza-sarean merkaturatzeko beharrezko kalitatea ez duen produktua dela, eta gainera heldze-prozesua gainditu duela, ondorioz presaka merkatu behar direla kontsumorako baldintza hobezinetan ipin daitezkeen merkatuan. Hau da, jokabide horrek justifikazioa izango luke, arrazoizkoa, arrazoitutakoa, proportzionala eta objektiboa. Gainera, horrela, aukera emango lieke bananak txikizka saltzeko merkatuko hurrengo lehiakideei (EROSKIk bai jarduten du eremu horretan) berak eskuratzen duena baino merkeago eskuratzeko produktua, eta jokabide horretan ezin da ikusi merkatuko aurkariak kanporatzeko inolako asmorik, ostera, on egingo lieke.

- 21.** Nolanahi ere, eta nahiz eta salatzaileak azaldutako gertakariak egiaztatu, kontuan izan behar da Txikizkako merkataritza antolatzeko urtarrilaren 15eko 7/1996 Legearen 14.1 artikulua (galerak dituzten salmentak arautzen ditu) honakoa dioela: bezeroei produktuak galerekin eskaini edo saltzeko debekua ez da aplikatuko gai galkorrak baliogabe geratzear daudenean. Araubide juridiko hori ez zaie txikizkako merkatariei bakarri aplikatu behar, baizik eta, Txikizkako merkataritza antolatzeko lege horren bigarren xedapen gehigarrian azaldutakoaren arabera, handizkako



merkataritzan jarduten duten edo beste merkatari batzuen pentzutan edo aginduz salmentak negoziatzeko bitartekotza-zerbitzuak eman edo eskuratzeak egiten dituzten erakundeei ere, horien izaera juridikoa edozein dela ere.

Bananak elikagai fresko eta galkorrak dira, eta dituzten ezaugarri naturalen ondorioz, epe laburrean mantentzen dituzte merkaturatu eta kontsumitu ahal izateko ezaugarri egokiak. Salatzaileak adierazitako kasuan MERCABILBAOn saltzeko ipinitako bananek ez dituzte betetzen EROSKIk, estatu osoan hedatutako merkataritzaren bitartez, xeheka merkaturatu ahal izateko egokitasun-baldintzak. Hori dela eta, eta banana produktu galkorra denez (are gehiago heltze-ganberetatik igaro ostean), azkar eman behar zaie irteera, duten kalitate txikia eta heltze-egoera kontuan hartuta. Jokabide horrek, bada, babes objektibo eta legezkoa du Txikizkako merkataritzaren antolatzearen 15eko 7/1996 Legearen 14.1 artikuluan.

- 22.** Azaldutako guztia kontuan hartuta, LDEA honek ez du lehiaren defentsari buruzko araudia urratu izanaren arrazoizko zantzurik ikusi salatutako gertakarietan, ez duelako ikusi eragindako enpresek prezio harrapakariak erabili dituztenik lehiakideak kentzeko MERCABILBAOn bananak saltzeko merkatutik. Salatutako gertakarien bitartez irteera eman nahi zaie baliogabe geratzear dauden gai galkorrei, eta gertakari horiek legezko babesa dute Txikizkako merkataritzaren antolatzearen legean.



Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegi honek, arestian aipatutakoa oinarri hartuta, honakoa

EBATZI DU:

BAKARRA: Onetsi egingo da Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuaren ebazpen-proposamena, zehapen-espediterik ez irekitzeko.

Ebazpen hau LDEZri, Lehiaren Batzorde Nazionalari eta interesdunei jakinarazi beharko zaie. Agerraraziko da ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen duela eta bere kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipini ahal izango dela. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan ipini beharko da errekurtsua, bi hilabeteko epean, jakinarazten denetik aurrera zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abenduaren 22a

LEHENDAKARIA
JOSEBA ANDONI BIKANDI ARANA

LEHENDAKARIORDEA
JUAN LUIS CRUCELEGUI GARATE

KIDEA
M^a PILAR CANEDO ARRILLAGA

IDAZKARIA
JOSE ANTONIO SANGRONIZ OTAEGI